

Testuinguruari buruzko gogoetak



Panpin honek bonba eraso baten alarma sortu zuen Bostonen (AEB)

Baina beste testuinguru batean?

Edukiak

Testuingurua.....	3.
Testuinguru teknologikoa.....	3
Testuinguru mugikorra.....	4
Testuinguru mugikorraren profitatzea.....	5

Testuingurua

Testuingurua oso gauza garrantzitsua da, goazen definizioa ikustera [Harluxet hiztegi entziklopedikoaren](#) hitzetan.

“Testuinguru iz. 1. Unitate linguistiko (fonema, hitza, esaldi) baten ingurunea, bere balio edo esanahia emango diona. 2. Gertaera baten inguruko zertzelada-multzoa. Iraultzak bere testuinguru historikoan aztertu behar dira.”

Bigarren adierak dioen bezalagertaera baten inguruko zertzelada-multzo bezala kontsidera daiteke. Hala ere, zertzelada-multzo bat izanik ere informazio handia izan dezake. Testuinguruaren eragina oso nabaria da aurrez-aurreko hitzaldi bat eta idatzizko elkarrizketa baten artean. Lehenengoan gorputz mugimenduak, hitz tonua etab. ditugun bitartean, bigarreanean horien faltan testuinguru horrek gordetzen duen antzeko zerbitu lortu nahian [emoticons](#)-ak bezalako elementuak erabiltzen ditugu.

Askotan pentsatu ohi dut testuingurutik kanpoko hitzek nolako eragina izan dezaketen hainbat egoeratan. Lagunekin askotan ibiltzen gara brometan izugarritzko astakeriak esaten, baina nire lagunek badakite brometan ari naizela, ez dudala benetan hori esan nahi, adierazten dudana hori moldatzen dakite testuinguruak ematen dion informazio hori esker. Aldiz zer gertatuko litzateke ezezagun batek (edo zelatan dabilen norbait) mezu horietako bat jaso eta bere testuingurua dela eta interpretazio ezberdin (ez egoki?) bat egingo balu? Egia esan bere testuinguruaren arabera interpretazio bat da eta berarentzat seguenik egia. Honekin guztiarekin, testuinguruaren garrantzia azpimarratu nahi dut.

Zergatik ahazten dugu orduan inguru teknologikoan ere testuinguruak garrantzi izugarria duela eta batez ere testuinguru hori aplikazio, abiadura, dispositibo, etab. arabera aldatzea dela?

Testuinguru teknologikoa

Aipatu dugu jada, baina argi dago gero eta gehiago gainera testuinguru teknologikoa guztiz aldatzea dela. Horregatik testuinguru aldakor eta anitz guzti horietara egokitzea ia ezinezkoa da. Nahiz eta hau horrela izan, testuinguru hauetara egokitzeko gomendio batzuk egin daitezke:

Estandarrak erabili: Informazioa interpretatzen duten egoera ezberdinetara egokitzeko garrantzitsua da interpretatu behar duten tresna, dispositibo, aplikazioek ulertuko dituzten formatu ahal bezain estandarrenak erabiltzea. Ahal den kasu guztietan estandar hauek irekiak izatea ere garrantzitsua da. Irekiak izatea informazio horren askatasuna bermatzen du, ez baita egongo erakunde konkretu baten erabakien eskuetan.

Zure datuen elkartrukea eta eraldatzea ahalbidetzen duten formatuak erabili: Zure nahia informazioa hedatzea baldin bada, informazio hori ahal bezainbeste formatuetan eman. Era honetan informazio horren mugikortasuna eta elkartrukatzeko ahalmena handitzen da eta testuinguru ezberdin askotara egokitzeko ahalmena izango du.

Zenbait egoerek (dispositibo, abiadura, aplikazio etab.) testuingurua guztiz baldintzatzen dutenez testuingurura egokitzapenak lan gehiago eskatuko ditu: Behin testuinguru konkretu

baterako edo orokorrerako zerbait prestatuta badago ere kontutan hartu beste testuinguru ezberdin baterako egokitu nahiko bagenu zenbait kasutan lan gehigarri bat eskatuko lukeela.

Honen adibide garbientako dugu dispositibo mugikorren adibidea. Hauen testuingurua, bere tamaina, abiadura, izaera mugikorrek etab. ohituta gauden testuinguruetatik kanpoko testuinguru bat osatzen du. Hala ere, testuinguru oso aberatsa da.

Testuinguru mugikorra

Testuinguru mugikorra aurrekoaren adibide edo korolarario moduan aurkeztu dezakegu. Ezaugarri fisikoek erabat baldintzatzen dute dispositibo mugikorrek eratzen duten testuingurua. Interesgarria iruditzen zait hala ere mugikorra ez dela dispositibo bat edo batzuk, izaera, esperientzia bat da. Zerbait mugikorra da mugitzeko, alde batetik bestera joateko aukera duelako ez tresna bat delako, hau da guk egiten dugu gailu edo tresna bat mugikor ez da izaera intrintseko bat. Telefono mugikor bat, telefono finko bezala erabili dezakegu gure etxetik mugitzen ez badugu adibidez.

Estandarrak erabili: Mugikorren kasuan hainbat gauza egiteko aukera dago. Hau da, era ezberdinetan gerturatu gaitezke testuinguru honetara. Aukera bat ezer ez egitea da eta dispositiboaren kapazitatea aurrera doan bezala [XHTML](#) orrialdeak egoki kodetzen hastea erabaki dezakegu. Hala ere badago dispositibo mugikorrentzat bereziki garatutako XHTML profil bat badugu [XHTML-MP](#) hain zuzen ere. Honek ez du %100ean ondo ikusiko dela ziurtatuko mugikor ezberdinek nabigatzaile anitz erabiltzen baitituzte baina behintzat aukera gehiago emango diegu hoi ondo egiteko gai badira.

Zure datuen elkartrukea eta eraldatzea ahalbidetzen duten formatuak erabili: XMLan oinarritutako elkartruke fitxategiak erabiltzeko aukera eman. Mota horietakoak izan daitezke RSS edo RDF formatuak dituzten fitxategiak. Era honetan erabiltzailearen esku uzten dugu gure eduki garrantzitsuenak jario irakurgailu edota beste tresna batekin jaso eta erabiltzeko aukera.

Zenbait egoerek (dispositibo, abiadura, aplikazio etab.) testuingurua guztiz baldintzatzen dutenez testuingurura egokitzapenak lan gehiago eskatuko digu: Testuinguru honek berezitasun batzuk ditu:

- **Dispositiboaren pantailaren pantaila txikia:** dispositiboaren pantailak informazioaren adierazpena baldintzatzen du. Garrantzitsua da funtzionalitate garrantzitsuenak detektatzea eta testuinguru honetarako era erosoan aurkeztea. Kontutan hartu behar dugu ez dela ordenagailu batean izango genukeen izaera berdina eduki behar duen zerbait sortu behar, testuingurura egokitu eta funtzionalitateei begirako garapen bat egitea gomendatzen da.
- **Dispositiboaren teklatuaren pantaila txikia:** Teklatua bezalako sarrera interfazeak ere testuinguruaren ezaugarri bat da. Zenbakizko teklatuak dira oraindik gehien erabiltzen direla baina hala ere QUERTY moduko beste soluzio batzuk ere agertzen hasi dira. Testuinguru hauetarako zerbitzu edo aplikazioak sortzerakoan kontutan hartzeko ezaugarria. Ez da oso arrunta testu luzeak era honetako gailuen bidez sortzea.
- **Testuinguruari dagozkion berezko informazioa:** Testuinguru mugikorrek beste batzuek eskaintzen ez dituzten zenbait testuinguruko informazio eskaintzen ditu. Kokapen geografikoa

edota mugikorrek bidalitako etiketa edo informazio intrintseko bereziak. Informazio hauek garapen egoki batekin konbinatuz testuinguru hau hobeto egokitzen lagun dezake.

- **Sarrera interfaze ezberdinduen aukera:** Teklatuak muga bat izan ohi dela ikusi badugu ere dispositibo mugikorrek [bluetooth](#) eta kamerak bezalako sarrera interfazeak izan ditzakete. Horiek profitatzen ikasten testuinguru honen aukerak biderkatu ditzake.
- **Interneteko sarbidea:** 3G bezalako konexioak oraindik orokortua ez dagoela (eta prezio altuan oraindik) beste aukera batzuk ere badaude GPRS adibidez. Beraz, momentuz jende gehienarentzat egokia densarbate bat oraindik ez dagoela esan daiteke (WIFI duten gailuak kenduta). Hau lortzen den momentuan benetako mugikortasunean murgiltzeko aukera izango dugu.

Testuinguru mugikorraren profitatzea

Testuinguru mugikorraren berezitasunak ezberdin egiten du eta horren ondorioz alde batetik muga izan daitezkeenak batzuetan aukeretan ere bilakatzen dira. Testuinguru honen berezitasunak egoki erabiltzen dituzten adibide batzuk ikusiko ditugu:


Testuingururako era egokian egokitzen den web gune bat: [Mobile Web Design](#) liburuan bidaiak, hotelak, kotxeak etab. lortzeko gune baten <http://www.kayak.com/> izeneko web gune baten adibide interesgarri bat agertzen da.

Web gune honen bertsio mugikorra <http://www.kayak.com/moby/> oso sinplea da baina funtzionalitatean da garrantzitsua. Web gune honen bidez era erraz batean bilatzen ari zaren hegaldi, hotel etab. kontaktuan jartzeko aukera ematen duen telefono eta helbideak ematen dizkigu. Gogoratu esku artean deiak egiteko aukera ematen duen dispositibo bat dugula eta hau erabiliz seguruenik ez dugula erosteta zuzenean burutuko.


Bidai bilaketak egiteko garaiak hasiera eta bukaera aireportuen kodeak sartuz bakarrik hurrengo ordutan ateratzen diren hegazkinen datuak emateko gai da eta hauekin batera kontakturako behar diren datu guztiak.



Irudia 1: kayak.com bertsio mugikorraren hasiera orria



Irudia 2: kayak.com bertsio mugikorrean Bilbo (BIO) eta Iruña (PNA) arteko hurrengo bidaien bilaketa



Irudia 3: kayak.com bertsio mugikorrean Bilbo (BIO) eta Iruña (PNA) arteko hurrengo bidaien bilaketaren emaitza

Kode bidimentsionalak: Zenbait operadoreek kode bidimentsionalak erabiltzen hasi dira kamera erabiliz hauek detektatu eta zenbait ekintza burutzeko aukera ematen dutenak. Kode hauek testuinguru mugikorrean aurkitzen diren sarrera interfaze ezberdinduen profitatzea dakar, kasu honetan kamara kode irakurgailu bihurtuz. Gure ingurunean [Movistar](#) izan da hauek inplementatzen hasi denetako bat. Bere proposamena [BIDI](#) kodeak dira eta hauek harrapatzeko programa bat jaisteko aukera ematen du. Hala ere, badirudi edonork ezingo dituela kode hauek sortu nahiz eta hau egiten duten tresnak egon.

“5. ¿Qué tipo de códigos puedo leer con la aplicación?

Con la aplicación podrás leer todos aquellos códigos (bidis) que han sido generados con la plataforma de Telefónica Móviles.”



Irudia 4: Movistarren bidi kode bat eta honek ahalbidetzen dituen ekintzak

Esan bezala badaude hala ere hainbat formatu estandar irekietan oinarritua antzeko kodeak irakurtzeko aukera ematen dutenak. Kode hauek Datamatrix eta QR kodeak dira. Hauei buruzko informazioa hemen topatu daiteke:

- [Datamatrix \(DM\) code](#), gune ofiziala, Acuity CiMatrix/Siemens
- [Quick Response - QR code](#), gune ofiziala, Denso Wave
- [Datamatrix \(DM\) code](#), Wikipedian
- [Quick Response - QR code](#), Wikipedian

Era berean, hauek sortzeko eta irakurtzeko dohaineko tresnak ere badaude, <http://www.kaywa.com> enpresak adibidez kode hauen sorkuntza albidetzen duten tresnak eta hauen irakurketa ahalbidetzen duten aplikazioak dohainik eskaintzen dituzte.



Irudia 5: Irakurgailuaren funtzionamendua erakusten duen grafikoa

Kode sortaileak:

- [Datamatrix kode sortailea](#)
- [QR kode sortailea](#)



*Irudia 6: Datamatrix kode
sortzailea erabiliz adibide bat*



*Irudia 7: Kayak.com-eko
irakurgailua erabiliz kode bat
jasotzeko*

GPS eta telefono mugikorrek bidaltzen dituen berezko informazioak profitatzen:

<http://www.hipoqih.com> guneak adibidez GPSdun telefono mugikorrek bidalitako testuinguru informazioa erabiliz sare sozial bat sortzeko aukera ematen du. Nahi diozunari (eta zuk aukeraturaz) zure lagunei non zauden esateko aukera duzu, horretarako jaisteko [aplikazio bat](#) eskaintzen dutelañik.



*Irudia 8: hipoqih.com
mugikorreko aplikazioa martxan*